



ADENNA, 100 enpresa baino gehiagok osatutako mugaz bestaldeko Diseinatzaile Industrialen aliantza berria

- Euskadiko Diseinatzaile Industrialen Elkateak – EIDEk eta Nouvelle-Aquitaniako Diseinatzaileen Federazioak – FDNAk, ADENNA sortu dute, Euskadi, Nafarroa eta Nouvelle-Aquitaineko diseinatzaileen aliantza.
- Aliantza berri honen helburua diseinu sektoreari nazioarteko hedadura ematea da eta Euskadi/Nafarroa/Nouvelle-Aquitaine Erorerregioaren eremuan agente gehiagorekin lan egitea.
- Bihartean Mugaz bestaldeko Ganberak aliantzaren sorrera bultzatu du, lurralde ezberdinen arteko lehiakortasunean laguntzeko helburuarekin.
- Akordioa hilaren 29an egingo da ofizial, Hendaiaiko Antoine d'Abbadie Auditoriumean egingo den ekitaldian. Ekitaldiak eskualdeko gobernuen babesa izango du.

Donostia – 2017ko ekainaren 27a - Hirurogeita zazpi profesionalak osatutako Euskadiko Diseinatzaile Industrialen Elkateak – EIDEK eta 40 profesionalak osatutako Nouvelle-Aquitaniako Diseinatzaileen Federazioak – FDNAk ADENNA sortu dute, diseinuko sektoreari nazioarteko hedadura emango dion mugaz bestaldeko aliantza.

Aliantza hau Bihartean Mugaz bestaldeko Ganberak sustatu du. Bihartean Gipuzkoako Bazkondeak eta Baionako Ganberak sortu zuten 2010ean mugaz bestealdeko proiektuak bultzatzeko helburuarekin. Gaur, Gipuzkoako Bazkondean, aurkeztu den ADENNA aliantza Biharteanen helburuen adibide argi bat da. Aliantzaren aurkezpena Pedro Esnaolak, Gipuzkoako Bazkondeko presidentea egin du eta berarekin batera Jon Abad, Euskadiko Diseinatzaile Industrialen Elkateko presidentea, Serge Glintzboeckel, Nouvelle-Aquitaniako Diseinatzaileen Federazioko presidentea eta Olga Irastorza, mugaz bestaldeko Bihartean Ganberako arduraduna izan dira.

ADENNA urte beteko lanaren emaitza da, epe honetan bi erakundeek eta Biharteanek euren indarrak batu dituzte Euskadi/Navarra/Nouvelle-Aquitaine Euroerregioaren eremuan diseinua sustatzeko eta helburuak honako hauek dira: esperientzia profesionalak eta praktikak elkar partekatu, berrikuntzako ekintza kolektioak bultzatu, diseinatzaileen arteko lankidetzarako guneak sortu eta lurraldeko erakundeek batera egindako diseinu ekintzak nazioarte mailan ikusi arazi.

Laburbilduz, diseinuaren ofizioak eta ezagutzak Euroerregioaren eremuan, Pirineotako alde bietan, sustatu, hori baita ADENNA sortu den eremua, kohesioa, ikusgaitasuna, garapen ekonomikoa eta proiektua duen proiektua.

Euskadiko Diseinatzaile Industrialen Elkatea – EIDE

1986an sortu zen Bilbon, Euskadi eta Nafarroako diseinatzaile profesionalak elkartzeko helburuarekin. Gaur egun, industria eta produktu arloko, grafika eta digital arloko eta gune eta zerbitzu arloko 67 diseinatzaileek osatzen dute elkatea. 2014 urtetik Jon Abad da elkarteko presidentea eta 2010etik eguneroko eginkizunetarako koordinazio lanak egiten dituen kudeatzaile bat dute, Benicio Aguerrea.

Elkarteak bazkide profesionalaz gain, 11 bazkide babesle ditu: BEAZ, CREADISEÑO Eskola Profesionala, CREANAVARRA Diseinuko Goi Eskola, EASD Gasteiz, Deusto Unibertsitateko Ingenieria Fakultatea, INEDI Diseinu Eskola, Mondragon Unibertsitateko MGEP, MTC-Grupo Maier, TECNUN-Nafarroako Unibertsitatea, TEXTIA y VIDRALA.

EIDE BiDCren (Bilbao Bizkaia Design Council) Kontseiluko kide da eta baita INNOBASQUEkoa ere, eta READen (Red Española de Asociaciones de Diseño) fundatzailea da.

EIDEn helburu nagusienak honako hauek dira: enpresa lehiakortasunean eta berrikuntzan diseinua faktore estrategiko bat bezala sustatzea; diseinua eta euskal diseinatzaileak sustatzea; diseinuaren praktika profesionalak bultzatzea iraunkortasunaren eta giza arduraren oinarrietan; profesioa oraingo eta etorkizuneko errealitatera egokitzeke egiten diren txostenen elaborazioan elkartearen parte hartzea bultzatzea; elkarteko kideen interes amankomunak ordezkatzea; nazio eta nazioarte mailako beste elkarteekin elkar lana sustatzea; diseinatzaile gazteak lan mundura sartzeko prozesuan laguntzea.

Nouvelle-Aquitaniako Diseinatzaileen Federazioa – FDNA

FDNA 2009an Bidarten sortutako elkatea da “1 de julio 1901” lege motakoa. Elkarte honen helburua diseinuaren arlo ezberdinetan lan egiten duten Nouvelle-Aquitaineko profesionalak elkartzea eta ordezkatzea da, bereziki produktuaren diseinuan, guneen espazioan eta zerbitzuen diseinuan lan egiten duten arlokoak. Batzar orokorrean aukeratutako pertsona fisikoek osatutako administrazio kontseilu baten bitartez funtzionatzen dute. 2017tik elkartearen presidentea Serge Glintzboeckel da.

Gaur egun 40 bat profesionalak osaten dute elkatea, aktiboan dauden diseinatzaile profesionalak dira euren lana bere kabuz egiten dutenak, agentzitan edo eta enpresetan barneraturik, eta beste hamar bat kide nolabait diseinuaren ofizioarekin erlazionatutak daudenak dira.

FDNaren helburu nagusiak honako hauek dira: diseinuaren praktikari balioa ematea eta aurkezten den era guztietan sinesgarritasuna ematea; Nouvelle-Aquitainen lan egiten duten diseinatzaileen lankidetzak bultzatzea; diseinatzaileen eta enpresen arte erlazio egokiak bultzatzea; erakundeekin harremanak garatu eta Nouvelle-Aquitaineko diseinuaren baliabideak sustatzea.

Bi elkarte hauek sortutako akordioa hilaren 29an egingo da ofizial Diseinu Industrialaren Mundu Egunarekin bat eginez. Ekitaldia Hendaiaiko Antoine d’Abbadie Auditoriumean egingo da eta eskualdeko gobernuen babesa izango du. Horrez gain, hiru lurraldetako diseinu agenteak bilduko dira – diseinatzaileak, enpresak, unibertsitateak eta goi mailako eskolak eta erakundeak—, diseinua berrikuntza irekiakin eta honen inguruan eratzen ari den Living Labs sarearekin konektatzeko helburuarekin.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Irune Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

943 000 310 / 688884347